

FUNTSEZKO JARDUERAK

Lehenik, gure enpresan, nahi dugun produktuaren diseinua egingo dugu. Produktuaren diseinua egin ondoren, Poloniako enpresari bidali egindako diseinua eta fabrikatuko dute; guk haiei egindakoarekin ordainduz. Lehen hilabetean, diseinu ezberdineko (tamaina, bolumena, etab.) egingo dute frogatzeko eta etekinetan baliatuko gara ondoren gehiago egin al izateko. Bezero bakoitzak aukeratuko du nolakoa nahi duen gure "Onel" produktua. Bezeroei gure "Onel" produktua etxera eramango diegu, garraioa bitartez, beraiek jarritako helbidera (etxea, enpresa, ...) hain zuzen ere.

Arazo bat balego gure telefono zenbakia dutenez, deitu besterik ez dute egin beharko eta guk arazoari aurre egiten lagunduko diegu bezeroei. Arazoa fabrikarena balitz, Poloniara bidaliko genuke bueltan arazoa konpontzeko.

Web-orrialdea guk erabiliko dugu, guk egingo dugu eta guk eramango dugu aurrera promozio ezberdinak eta aukera ezberdinak bertan ezarriz. Gure lokalean edukiko ditugun ordenagailuetatik kontrolatuko dugu web-orrialdea.

Guk egingo ditugun atalak produktu honen diseinua, publizitatea, garraioa, kostuaren eta diruaren antolaketa eta bezeroekiko harremanak izango dira. Gu produktua garraiatzeaz arduratzen den enpresarekin kontaktuan jarri behar direnak izan arren, gero enpresa hau izango da garraiatzeaz arduratuko dena. "Onel" manufaktura, berriz, Poloniako fabrikak egingo du, eta bere esku utziko dugu produktua sortzeko prozesu guztia.

Nagusitasuna eta garrantzia, ura berrerabiltzea emango diogu. Horregatik, irabazien zati handi bat makina gehiago erostera bideratutako dugu. Baina hori egin baino lehen, garrantzi handia eman beharra zaio ordenagailuz egingo den lanari. Izan ere, horren bidez hitz egingo dugu sozioekin.